

**2019ko IRAILAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

13 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko irailaren 26an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Gai-zerrendan dauden gaiak aztertzen hasi aurretik, Udalbatzak larrialdi klimatikoari buruz adostutako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau irakurri du alkate jaunak,

Larrialdi klimatikoari buruzko Adierazpen Instituzionala

Adierazpen Instituzional honen bidez, Zarauzko Udalak onartu egiten du gizakion jardueraren ondorioz sortutako krisi klimatikoaren larritasuna; izan ere, bizidun guztioi eta planetako ekosistema guztiei eragiten die, baita gure espezieari berari

ere. Ebidentzia zientifikoak ukaezinak dira, eta biodibertsitatearen egoerari eta lurraren beroketari buruz duela gutxi egin diren txosten batzuek ohartarazi dute daramagun norabideak lurreko ekosistema askoren desagertzea ekarriko duela. Aldaketa klimatikoaren aurrean atzerabiderik gabeko gunera iristeko zorian dago gure planeta.

Ebidentzia horien aurrean, mundu osoko gazteak ari dira mugitzen eta gobernuei eskatzen har ditzatela neurriak lehenbailehen krisi klimatiko honi aurre egiteko, planeta mailan aldaketa handiak eragingo baititu, baita gizakioi ere, zalantzarik gabe.

Premiazkoa da herrialde eta herri bakoitzean neurriak hartzea tenperaturak 1,5° C-tik gora igo ez daitezen, eta hartara, CO2ren emisioak gutxitzeko Parisen hartutako akordioak betetzeko.

Horregatik guztiagatik, Zarauzko Udalak honako neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du:

- 1- Zarauzko Udalak larrialdi klimatiko egoera deklaratu du eta mundu mailako mobilizaziora atxikitzen da.
- 2- Berotegi efektua eragiten duten gasen isuria murrizteko konpromiso politiko, normatibo eta beharrezko baliabideak bideratzea Pariseko konpromisoak betzeko beranduenez 2040. urtean eta ahal izanez gero 2035 aurretik. Honetaz gain, biodibertsitatearen galera gelditu eta ekosistemak berreskuratzeko lanak bultzatuko dira sistema naturalak zainduz. Honen harira, Eusko Jaurlaritzari premiatzen zaio ahalik eta azkarren onar dezala Aldaketa Klimatikoaren legea neurri zehatzak har daitezen.
- 3- Zarauzko Udalak, erregai fosilak alde batera utziko ditu, energia berriztagarrien aldetik apustu sendoa eginez. Horretarako udal gobernuak 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko konpromisoa hartzen du.
- 4- Zarauzko Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromisoa hartzen du. 2020 urtean aldaketa klimatikoari aurre egiteko ekintza plana abian jarriko du, udalerriko egoeraren diagnostika kontutan izanda eta herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatuz. Bertan, puntu garrantzitsu bezala, herriko espazio naturalen babesa eta "regenerazioa" bultzatuko da. Aldaketa klimatikoari buruzko plan hau, agintaldi honetan Zarauzko udalak diseinatuko duen Plan Estrategikoan kokatzeko konpromisoa hartzen dugu, beti ere "Klima 2050" eta 2030 estrategia energetikoaren konprometituz.
- 5- Justizia, demokrazia eta gardentasuna izan behar dira hartzen diren neurri guztien zutabe nagusiak, beraz herritarren parte hartzean oinarritutako erabaki gune bat ezarriko da, jarraipen, kontrol eta begirale lanak egingo dituen hartutako erabakietan.

- 6- Jakitun gara, baita ere, aldatu egin behar direla baliabide naturalen kontsumo ohituretan familien eta norbanakoen eguneroko erabakiak. Horretarako, sentsibilizazio kanpainak bultzatu eta babestuko ditu Udalak.
- 7- Zarauzko Udalak bat egiten du larrialdi klimatiko egoera dela medio, irailaren 27an deituta dagoen nazioarteko grebarekin eta herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu. Gainera, herritarrak 4 minutu eta 15 segunduko kontzentrazioa deitzen ditu irailak 27an goizeko 11etan Udaletxe parean. Honekin, modu sinbolikoan arreta jarri nahi da atmosferan dagoen CO₂ kontzentrazio altuan, 415 ppm-koa neurtu baita aurten, lehenengo aldiz azken 3 milioi urteetan.
- 8- Zarauzko Udalak bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritar zein auzoei eta grebaren antolatzaile (Juventud por el Clima, 2020 Rebelion por el clima eta Alianza por el Clima), Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Europar Parlamentuari bideratuko die onartutako mozioa.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERRENDIA

1.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA

2019III0011 espedientea

Eguneko aztergai honi dagokionez, jarduneko idazkari andreak prozedurari buruzko txosten juridikoa irakurri du. Eta jakitera eman duenez, Azpeitiko Hauteskunde Batzarrak hartutako akordioaren bidez (sarrera-erregistroan 9541 zk., abuztuaren 1ekoa),

OIHANE DELGADO PITA andrea

izendatu du Zarauzko Udaleko zinegotzi, hain zuzen ere, 2019ko maiatzaren 26ko Udaltzarraren Hauteskundeetarako PODEMOS-EQUO BERDEAK koalizioak aurkeztutako hautagai-zerrendan zegoena, Ana de Benito Sanz andrea ordezkatzeko.

Era berean, jarduneko idazkariak Udaltzarrari adierazi dio, eta hau jakinaren gainean geratu da, zinegotzi hautetsiak aurkeztu dituela bai bateraezintasun kauseri buruzko eta egiten dituen jardueri buruzko aitorpena bai ondareko ondasunen aitorpena, 2019ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran Udaltzarrak onartu zuen ereduaren arabera; eta horiek Korporazioko kideen Interesen Erregistroan inskribatuta geratu direla.

Segidan, legezko izapideak bete ostean eta –hauteskunde-legedian legez ezarritako formularen arabera– aurrez hitz eman ondoren, **Delgado** andreak kargua

formalki hartu du, eta ondorio guztietarako Zarauzko Udaleko zinegotzi izaera eskuratu du.

2.- 2019ko UZTAILAREN 23ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2019ko uztailaren 18tik irailaren 20ra

Segidan, Alkatetzak 2019ko uztailaren 18tik irailaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udaltzazak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2019ko uztailaren 22tik irailaren 16ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 22tik irailaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udaltzazak.

5.- KULTURA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

2019K9990017 espedientea

2018ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran Udaltzazarrak KULTURA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK onartu zituen; eta testua 2019ko otsailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (33 zk.) argitaratu zen.

Orain, Kultura Departamentuak proposamen bat aurkeztu du dirulaguntzak emateko oinarri espezifiko haiek aldatzeko.

Egin nahi diren aldaketek, funtsean, balorazio irizpideetan eta hizkuntzari buruzko irizpideen egokitzapenean dute eragina.

Horiek horrela, eta 2019ko abuztuaren 13an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udaltzazarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea KULTURA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ALDAKETARI, ondoko artikuluei idazkera berria emanda:

- 4. artikulua: Dirulaguntzarako irizpideak.
- 6. artikulua: Onuradunen betebeharrak (hizkuntzari buruzko baldintzak)
- 11. artikulua: Publizitatea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- 2019. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

KULTURA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Helburua
2. Onuradunak
3. Prozedura
4. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak
5. Gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak
6. Onuradunen betebeharrak
7. Zuzkidura eta aurrekontuko partida
8. Ebazpena: Organo eskudunak eta jakinarazpen-epea.
9. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea (*kontabilitateko liburuak eta erregistroak, epeak eta forma, ordainketa aurreratuak...*)
10. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak
11. Publizitatea
12. Araudia

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da Zarauzko udalerriko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzak hainbat kultur programa eta jarduera burutzeko izango dira, eta beren proiektu eta interesetatik bat etorriko dira **Kultura Departamentuaren** honako programen helburuekin:

- a) KULTURA-PROGRAMAK ORO HAR
- b) KULTURA-TRUKEKO ETA SENIDETZEKO JARDUERAK

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.

2. ONURADUNAK

Dirulaguntza horiek **Zarauzko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-arloko elkarteek** eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera batik bat Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Salbuespen gisa, zehazten den kasuetan eta Kultur zinegotziaren proposamenaz, Zarauztik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerrriaren barruan garatzen bada edo udalerrriarentzat interesgarri jotzen bada.

Dirulaguntzen onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailearen 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Eskaerek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Kultura Departamentuaren urteko deialdian** zehazten den eskaera ofizialaren eredia betez egin beharko dira, non elkartearen ardura-postuetako edo / eta bazkideen osaera-datuak, sexuaren arabera bereizita zehaztuko diren.
- Programa edo jardueraren ordezkari edo pertsona arduradunak dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofizialaren gelaxka GUZTIAK beteko ditu.

Udaletxeko Erregistro Orokorrean hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita:

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua): astelehenetik ostiralera 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara

Eskaerarekin batera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 14. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskabidearekin batera, zehazki honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Elkarteko eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia.

Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

3. PROZEDURA

Dirulaguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

4. DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

4.1.- Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera (inprimaki E-01 eredia) doan memoria labur batean egiaztatuko beharko dira:

- Elkartearen erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna, bazkide-kopurua etabar.
- Burutu beharreko programaren edo jarduera.
- Programaren edo jardueraren bideragarritasun ekonomikoa
- Elkartearen finantza-baliabideak
- Oinarri hauetan, **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiak** ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-02 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

- Oinarri hauetan, **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak** ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.
- Oinarri hauetan, **Ingurumenari buruzko Udal Araudiak** ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.
- Oinarri hauetan, **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (E-03 eredu-inprimakia), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

1. Elkartearen erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna eta bazkide-kopurua: puntu 1 /urteko; gehienez **15** puntu.
2. Bazkide-kopurua: 0,5 puntu /bazkideko; gehienez **15** puntu.
3. Dirulaguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitze organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez %40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.
4. Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez %40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.
5. Burutu beharreko programaren edo jarduera: 2 puntu / jarduerako; gehienez **15** puntu.
6. Diruz laguntzen den proiektuak berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta / edo antolatutako jarduerak genero-ikuspegia edukitzea, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, arazoak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.
7. Bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak (gehienez 25 puntu)
 - a) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: gastu eta diru-sarreraren aurrekontu zehazta: puntu 1 / 1.000,00 €-ko; gehienez 15 puntu.
 - b) Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutako dirulaguntzaren¹ proportzioa bere baliabide propioekiko: 0,1 puntu lortutako auto-finantzazioaren %1rako; gehienez 10 puntu. Atal honetan, gutxienez 2,5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.
8. **Proiektua bera euskaraz gauzatzea eta proiektuaren berri emateko euskarriak euskara hutsez zabaltzea: 8 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.**
9. **Diruz laguntzen den proiektuan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea: 2 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.**
10. **Udalarekiko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak (eskabideak, zuriaketak, memoriak...) euskaraz izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.**

Eskatutako diru-kopuruak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera gutxie erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri behar.

5. GEHIENEZKO KONTZEPTUAK ETA ZENBATEKOAK

Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

a) KULTURA-PROGRAMAK ORO HAR

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

¹ Eskatutako dirulaguntzaren kopurua zehaztu behar da

b) KULTURA-TRUKEKO ETA SENIDETZEKO JARDUERAK

b.1) Trukeak hiri senidetuetako elkarrekin:

Zarauzko elkarrekin hiri senidetuak bisitatzeko:

Ondorengo kantitateak lagunduko dira diruz kontzeptu hauengatik:

- Hiri senideturaino egindako joan-etorrien gastuen % 50.
- Hiri senidetuaren aurreko diren kultura-jardueretatik -museoetako sarrerak, etab.- sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultura-jardueren horiek egin direla egiaztatzen duten gastuaren frogagiriak aurkezten direnean onartuko eta ordainduko da.

Hiri senidetuaren elkarrekin Zarautz bisitatzeko:

Kultura-trukea egiten duen hiri senidetuaren elkarrekin Zarauzko elkarrekin sortutako gastuen % 50eraino lagunduko dira diruz, aurreko gastu horiek egiaztatzen dituen gastuaren frogagiriak aurkezten badira eta 300 euroko mugaraino.

b.2) Trukeak senidetu gabeko udalerrietako elkarrekin:

Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu ondorengo kantitateak kontzeptu hauengatik:

- Xedeko udalerrirainoko joan-etorrien gastuen % 50, 900 euroko mugaraino.
- Senidetu gabeko hirian aurreko diren kultura-jardueretatik -museoetako sarrerak, etab.- sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultura-jardueren horiek egin direla egiaztatzen duten gastuaren frogagiriak aurkezten direnean onartuko da.

ESPRESUKI dirulaguntza mota horren EMAKIDATIK KANPO utziko dira ostatu- eta mantenu-gastuak, izan ere, senidetzaren filosofiaren arabera, bidaiatzen duten elkarrekin kideek hiri senidetuaren elkarrekin kideen etxeetan hartuko dute ostatu.

Dirulaguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jardueren modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntza jasotzen den jardueren antolatzea.
2. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta eta egunean dituela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalarari honek bere aldetik erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.
3. **Hizkuntzari buruzko baldintzak**
 - a) Diruz lagundutako jardueren guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta ele bitan egin ez gero, beti ere euskara ondo lehenetsita. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea, sare sozialak...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz edo ele bitan egingo dira.
 - b) Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jardueren guztiak euskaraz egingo dira.
 - c) Hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo da honakoak gauzatzeko: jendaurreko ekitaldiak, bilerak, hitzaldiak, sare sozialak, informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra, megafonia, web orria, whatsapp taldea...
 - d) Hirugarrenekin kontratatutako zerbitzuak nagusiki euskaraz eskainiko ditu: hitzaldiak, begiraleak, ikastaroak, autobus gidariak...
 - e) Euskaraldiak sustatutako hizkuntza jokabideak zabaltzen lagunduko du elkarrekin. Elkarrekin barruan ere, euskaraz egiten saiatuko dira, Ahozki/Belarraprest rola praktikan jarri (bileretan, hitzaldietan, entrenamenduetan...)
 - f) Dirulaguntza justifikatzeko txostena euskaraz edo ele bitan idatziko da. Jardueraren garapenean sortutako euskarriak ale bana erantsiko dira.

4. **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira:
 - a) Sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez egitea, kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere.
 - b) Administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez izatea, sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik.
 - c) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan komunikazioa modu ez-sexista eta barneratzailean erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
 - d) Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - e) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.
5. **Ingurumenari buruzko Udal Araudiaren** arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira:
 - a. Elkarte/erakunde honek bere jarduera guztietan sortuko dituen hondakinak gaika sailkatzea eta behar den bezala kudeatzea
 - b. Elkarte/erakunde honek bere jarduera guztietan birzikatutako materialez egindako paper, kartoi... erabiltzea, bi aldetatik inprimatutakoak, eta abar.
6. **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoaren arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira:
 - a. Elkarte/erakunde honek beren jarduera guztietan alkoholdu edarien publizitaterik ez egitea, ez eta 18 urtetik beherakoei ez alkoholdu edaririk ez tabakorik saltzea edo hornitzea.

7. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Kultura Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

8. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespina (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritik.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

9. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Kultura Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du, ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - o gastuaren frogagiriak ekarrita
 - o ikuskariaren txostena ekarrita
 - o erraztua

- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du barne:

- Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jarduera-memoria** bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

PROIEKTU EDO JARDUERAREN IZENA

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

- a) Burutako jardueren zehazpena: datak, jarduerak, tokiak...
 - Diruz lagundutako jardueren deskripzio zehatza eta edukia
 - Lortutako helburuak
 - Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskripzio zehatza
 - Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentaietan)
 - Emaitzen ebaluazioa
 - Beste alderdi batzuk

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria. Jarduera-memoriak elkarteak balorazio-irizpideak betetzeko hartzen diren neurriak zerrendatuko ditu.

- b) Hala badagokio, **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - c) Hala badagokio, **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - d) Hala badagokio, **Ingurumenari buruzko Udal Araudiari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - e) Hala badagokio, **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - f) Dirulagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafiko eta idatzita: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea...
- **Memoria ekonomiko** bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituen:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (**erabili E-05 inprimaki-eredua**).
 - b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko, dagozkion transferentzien agiriekin edo aurkeztuko da dirulaguntza kobratuko den kontu-korronte/ euskarriko mugimendu guztien xehetasuna, hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdian egindakoa.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien **erantzukizunpeko adierazpena**, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (**erabili E-05 inprimaki-eredua**).

Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua erabiliz gero, aldeztu ezarri ahal da justifikaziorik behar izango ez duen goren muga (portzentajea) edota kopurua. Goren muga edota kopuru zehatza, bere kasuan, Kultura Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

- 3. Oinarri hauetan zehazten diren **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudian** ezarritako betebeharrak bete direla zehazten duen zinpeko aitortpena. Horretarako E-06 inprimaki-eredua bete behar da.

10. DIRULAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen abonua Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.

Ordainketa aurreratutako egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, aurrez behar bezala justifikatutako eskaera eginda. Nolanahi ere, azken zatiaren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

11. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, **euskaraz edo ele bitan. Ele bitan eginez gero, beti ere euskarari lehentasuna emanda.**

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

12. ARAUDIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

6.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA:

– 2019-KALD-000009-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde	13	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	8	(8 EH Bildu)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2019-KALD-000009-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak: 2019ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatu da.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin, honako hau

ERABAKI DU

Hasierako onespena ematea 2019-KALD-000009-00 zenbakia duen KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI. Udal honek aurtengo ekitaldirako duen aurrekontuari

dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, egindako proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
7	Kapital transferentziak	160.208,89 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...		160.208,89 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	160.208,89 €
GUZTIRA ...		160.208,89 €

7.- KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA: AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA:

– 2019-KALD-000009-00 kreditu aldaketa.

Udalbatzak jakin berri du Kontu-hartzaitzak 2019ko irailaren 5ean egindako txostena: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, eta Udalak onartu berri duen aurrekontuko kreditu aldaketaren ondorioz egin beharrekoa zena.

8.- 10.2 –OR SALBERDIN– AREAKO AD-BAT PARTZELAREN DOAKO LAGAPENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ALDE, ZUZKIDURA-BIZITOKIAK SUSTATZEKO.

2017H9890003 espedientea

2017ko abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak eta Zarauzko alkateak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, Zarauzko hiri antolamenduaren plan orokorreko 10.2 –OR Salberdin– areako AD partzelan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko.

2018ko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak berretsi egin zuen aipatutako hitzarmena.

Hitzarmenaren konpromisoen artean, honakoa zegoen: Udalak doan emango ziola Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorrari Salberdin areako birpartzelazio-proiektuko AD-BAT azpipartzela eraikigarria.

Behin Salberdineko birpartzelazio-proiektua onartzeko akordioa irmoa egin zenean bide administratiboan, doako lagapena erabakitzeko prozedura hasi zen.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak izapidetu zuen espedientea, udal teknikariek txostena egin zuten, eta udal kontu-hartzaileak fiskalizatu zuen.

Gero, jendaurrean jarri zen partzela doan lagatzeko proposamena, eta ez zen alegaziorik erregistratu.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatza osatzen duten 21 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum" arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Baimentzea 10.2 –OR Salberdin– areako AD-BAT udal jabetzako azpipartzela eraikigarriaren doako lagapena, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren alde. 290.254,03 eurokoa da partzelaren tasazio-balioa.

Alkatetzak izango du doako lagapenaren eskritura publikoa sinatzeko ahalmena, Udalaren izenean.

Bigarrena.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, lagapenaren berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

9.- EUSKAL FONDOA –Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes- ELKARTERAKO UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA

2019III0006 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du jarduneko idazkariak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

"2019ko ekainaren 17ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 9100 zk., uztailaren 18koa), EUSKAL FONDOA Elkarteak Udalari eskatu dio Elkartearen Batzar Orokorrean ordezkatzeko duen pertsona izendatzeko.

Hori horrela, eta Heritarren arloko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Honako zinegotzi hau izendatzea, EUSKAL FONDOA Elkartearen Batzar Orokorrean Zarauzko Udala ordezkaria dezan:

Euskal Fundoa - Batzar Orokorra

Ordezkaria	Patxi Elola Azpeitia.”
------------	------------------------

10.- UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEKO ORDEZKARI BAT ALDATZEA

019III0006 espedientea

Eguneko aztergai honi dagokionez, **alkate** jaunak adierazi du ez dagoela inolako informazio-batzorderen irizpenik eta, hori horrela, eguneko gai-zerrendan sartzea berresteko bozketa egin behar duela Udalbatzarrak.

PRESA

Presa aitortzeko bozketa egin dute eta, aho batez, bertan dauden guztiak horren alde agertu dira. Beraz, Udalbatzarrak berretsi du aztergaia osoko bilkura honetako eguneko gai-zerrendan sartzea.

Segidan, aurkeztutako akordio-proposamena irakurri eta bozketan jarri dute, emaitza honekin:

Botoak alde	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako erabaki hau hartu du:

“2019ko uztailaren 2an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen zinegotzi batzuk izendatzea, kide anitzeko organoetan Udalbatza ordezkaria zezaten.

Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzorderako, entitate horren estatutuetan aurreikusita dauden bost kideak izendatu ziren.

Orain, EAJ-PNV udal taldearen bozeramaileak aldaketa bat proposatu da, zehazki, GLORIA VAZQUEZ HERRANZ andrea ordezkaria.

Aurrekoa ikusita, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin, honako hau

ERABAKI DU

LEIRE ARANA OLABARRIETA andrea izendatzea Zarauzko Udalaren ordezkari Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordean, GLORIA VAZQUEZ HERRANZ andrearen ordezkari jardun dezan.”

– UDAL TALDEEK KLIMA ALDAKETA ETA LARRIALDIARI BURUZ AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

11.- EH Bildu udal taldeak: Klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko mozioa.

2019O0010009 espedientea

12.- PSE-EE udal taldeak: Larrialdi klimatikoari buruzko mozioa.

2019O0010010 espedientea

Aztergai honetara iritsita, udal talde aurkezle bakoitzak atzera egin eta aurkeztutako mozioa kendu du gai-zerrendatik. Izan ere, mozio horien ordezkari, udal taldeek adostu baitute bilkuraren hasieran alkate jaunak irakurritako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

13.- ESKARI-GALDERAK.

Gai-zerrendako puntu honetan, **alkate** jaunak gogora ekarri du aurreko osoko bilkuran erantzunaren zain geratu zen galdera, hain zuzen ere: ea Asti aisiarako gunearen lizitazioa martxan jarri aurretik, ondoren esleipenduna izan zen enpresako kideak EH Bilduko taldearekin batzartu ziren, Santa Barbara-Mutxion tirolina eta restaurante bat egiteko proposamena aurkezten, bai edo ez. Eta **Murua** andreak ezezko erantzuna eman dio.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortziak bost gutxitan; eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.